

Battiste Alamon
Donibane Garazi, Nafarroa Beherea
(1879)

Aurkibidea

Biografia

1879ko uztailaren 22an sortu zen Baptiste ALAMON Donibane Garaziko Merkatu plazako Casenave etxean. Aita Iruñean sorturiko merkataria zen. Ama, berriz, Landibarre udalerriko Behaune herrikoa zen. 1909ko uztailaren 31n, Marie LOYATO anderearekin ezkondu zen. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 34 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Notarioa zen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.192

Zintak

DGA-002

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-28
- **Iraupena:** 2 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Ehiztarien txabolan botila hustutzero sartzen zen gizona

- **Erref:** DGA-002/001
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:38

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Hiztunak bizitako istorio bat kontatzen du. Ehiztari batzuk usoak harrapatzen zeuden bitartean, gizon zahar bat beraien ehiza-txabolara sartzen zen beti botiletako azken tantak edatera. Gizon zaharrak ez zuenez ohitura hori aldatzeko asmorik, ehiztariak botila bat laxantez betetzea erabaki zuten. Handik gutxira, gizon zaharra txabolaren zoruan etzanda agertu zen, minaren minez.

Transkripzioa

Zaroko herrian iten dut urzo ihizia. Eztakit ikusi duzunez ihizi hori nola iten den. Iten badaazu aurtengo azaruan ikhustea jiteko plazerra, seur gustatuko zira. Horra behin zer gerthatu zitzaun. Gure ihiziko apheguari hurran bizi zen gizon zahar bat, zartain zaharra bezain gormanta. Eta arrats guziez gu aphegutik jalgi ta berehala juaitentzen gure ihizi-lekhurat ikusteko zer utzi ginien jateko hun zenik. Zonbeit aldi uzten ginien soberatzen zitzaun jateko edo edateko zerbait, eta bihamunian falta hatxemaiten gintien. Okhaztatuik gizon xaharrain eitatiaz, hitzartu ginen behar giniela ederki harrapatu. Arrats batez, etxeat abiatzen gira, eta bidian hatzemaiten duu gure gizona. Elheka hasten gira, eta erraiten daut: "Hou Battitta! Deus ee hunik utzi daaxia hor enetako?". "Ba gizona, ba! izan behar hor ano xahar undar bat". Eskiak emanik, uzten dut xaharra. Bihamunian Zaro guzia airian zen. Gizon gaixua heiagoraka ai zanik gau guzia uste zuten hiltzen zela. Izigarriko purga'at guk flaskuan utzia edan zien. Gaixo gizona! Eta sekulakotz utzi zien gure undarren biltzia. Agian kunkurtuko hiz orruaz! Debriak eremain ahal hu Arradoiko kaskuari goiti! Leher eta zapart inen ahal duk!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com